| | | |
|---|---|---|
| **Data**: 2009/05/25<br>**Fecha**: 25/05/2009 | **Ordua**: 19:00 – 21:00<br>**Hora**: 19:00 – 21:00 | **Lekua**: Udaletxea<br>**Lugar**: Ayuntamiento |

**Parte-Hartzaileak/Asistentes:**

***Udala / Ayuntamiento:***

- Lorea Muñoz (Alkalte Andrea / Alcaldesa)
- Iker Ballarin / Mikel Zarrabeitia (Zinegotziak / Concejales)

***Gizartea/Sociedad:***

Herritar 2 / 2 ciudadanos

***Kontsultaria/Consultora:***

Ainhoa Ugalde / Amaia Abanzabalegi / Juan Mª Lersundi(BITAKA)

| **1. Saludos y agradecimientos** | **1. Aurkezpena eta esker onak** |
|---|---|
| Lorea Muñoz, Alcaldesa de Izurtza, da la bienvenida y agradece a todos y todas las personas asistentes por su participación, subrayando la importancia de su colaboración en este Foro de presentación de la Diagnosis del Plan de Movilidad Sostenible del Duranguesado.<br><br>Expone que actualmente se está elaborando el estudio relativo al Plan de Movilidad Sostenible en la comarca del Duranguesado. Por ello, coincidiendo con las diferentes fases de redacción del mencionado plan, se ha entendido preciso convocar dos foros de participación ciudadana donde toda la ciudadanía podrá tomar parte en el debate.<br><br>Tras la presentación , la Consultoría procede a detallar el orden del día:<br><br>• Saludos y agradecimientos;<br>• Presentación de la Diagnosis del Plan de Movilidad Sostenible del Duranguesado;<br>• Ruegos y preguntas;<br>• Trabajo grupal;<br>• Resumen del trabajo grupal;<br>• Agradecimientos y próximos pasos.<br><br>Dado el número de asistentes, se opta por realizar una presentación abierta y comentada por los mismos y posteriormente iniciar un debate. | Lorea Muñoz Alkate Andreak ongietorria eman die bertaratuei eta eskerrak ematen dizkie euren parte-hartzeagaitik. Aldi berean euren laguntzaren garrantzia nabarmendu du Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorraren planaren diagnosia aurkeztu den foro honetan.<br><br>Gaur egun Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorraren inguruko azterketa bat abian dela azaldu du. Plan horren faseak aurrerantza doazen heinean, bere edukiak aztertzeko, herritarrengana jo da denen artean gai horren inguruan eztabaida burutzeko. Hori da partaidetza foroak eratzeko arrazoia.Helburtua Mugikortasun Iraunkorraren Planaren diagnosiaren zirriborroa aurkeztu eta horren inguruko eritziak elkar trukatzea da.<br><br>Aholkularitzako kideek, jarraian, gai zerrenda azaldu dute:<br><br>• Aurkezpena eta eskerrak<br>• Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorraren Planaren diagnosiaren aurkezpena.<br>• Galde-eskeak<br>• Taldekako lana<br>• Taldekako lanaren laburpena<br>• Agurra eta hurrengo pausuen azalpena.<br><br>Bertaratutako jende kopurua dela eta, aurkezpen zabal bat egitea erabaki da, eta beraiek iritziren bat plazaratu nahi badute lasaitasun osoz egin dezatela. Gerora elkarrizketa bat egin da gaiaren inguruan. |

| **2. Presentación de la Diagnosis del Plan de Movilidad Sostenible del Duranguesado** | **2. Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorreko Planaren Diagnosiaren aurkezpena** |
|---|---|
| Ainhoa Ugalde y Amaia Abanzabalegi realizan la presentación de la Diagnosis del Plan de Movilidad Sostenible del Duranguesado mediante la ayuda de una presentación por ordenador.<br>En dicha presentación entre otras cuestiones se exponen los siguientes contenidos: el alcance y la razón de ser del estudio; las fases del plan; los objetivos que debe cumplir; el contenido y los datos más relevantes del diagnóstico del Plan de Movilidad Sostenible del Duranguesado.<br>Así mismo, durante toda la exposición se subraya que el documento del diagnóstico es un documento provisional que se espera que sea completado con las aportaciones propuestas por la ciudadanía en el presente foro. | Ainhoa Ugalde eta Amaia Abanzabalegik aurkeztu dute Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorraren Planaren diagnosia, ordenagailu bidez proiektatutako aurkezpen bat lagun.<br><br>Aurkezpenaren edukiak, besteak beste, honako hauek dira: azterketaren eremua (zein herritan burutu den), zergaitik egin den, planaren faseak, bete beharreko helburuak, eta azkenik, diagnosiaren edukia bera eta datu esanguratsuenak.<br><br>Argi utzi nahi izan dute aurkeztu den dokumentua zirriborro bat dela, behin-behineko dokumentua beraz. Diagnosiaren behin betiko bertsioa herritarren ekarpenekin osatutako izango da. |
| **3.- Ruego y preguntas** | **3.- Galdera- eskeak** |
| La consultora consulta a las personas asistentes si desean plantear alguna pregunta o ruego a cerca de la presentación expuesta.<br>Uno de los asistentes comenta que en su niñez se utilizaba la bicicleta para todo y que deberíamos de aprender de aquello.<br>Otro de los asistentes, pregunta porque no se ha incluido Zornotza en el estudio. Los técnicos comentan que dada la importancia de Zornotza sería idóneo incluirlo en el estudio, pero que Zornotza no está incluido en la Agenda Local 21 del Duranguesado y que el alcance de estudio estaba definido por la Mancomunidad y los Ayuntamientos miembros.<br>Este último asistente pregunta si los vehículos pesados se incluyen en los IMD-s expuestos en el estudio. Se le responde afirmativamente y se le señala que aunque en la presentación no aparezca el porcentaje de los IMD-s en el estudio completo sí que aparecen.<br>Una vez respondidas todas las cuestiones planteadas, nadie muestra signos de tener alguna cuestión que realizar y se entiende que no hay ninguna pregunta más al respecto, dándose paso al siguiente punto del orden del día. | Aholkularitzako teknikariek bertaratutakoei egindako aurkezpenari buruz galderarik edo eskaerarik baduten galdetu diete.<br>Herritar batek dio bere haurtzaroan bizikleta erabiltzen zutela garraiobide bezala eta hau berreskuratu egin beharko litzatekeela.<br>Parte-hartzaile batek Zornotza zergaitik ez den aztertu galdetu du. Teknikariek azaldu dute ados daudela, Zornotzak berebiziko garrantzia duela eskualdearen mugikortasunari dagokionez, baina Durangaldeko Agenda21ean ez dela eta Amankomunazgoak eta Udalek ezarri dutela azterketaren eremua zein izan behar den, eta aholkularitzaren esku ez dela egon.<br>Parte-hartzaile honek bestalde, azterketan agertzen diren EBIak (Eguneroko Batasbesteko Intentsitateak) ibilgailu astunak kontutan hartzen dituen galdetu du. Azterketaren laburpenean ibilgailu astunen ehunekoa adierazi ez arren azterketaren dokumentuan agertzen direla erantzun zaio.<br>Egindako galderei erantzun ostean, bertaratuei galdera gehiago baduten galdetu zaie, eta ez dagoela erantzun da. Beraz, gai-zerrendari jarraituta, hurrengo gaia jorratzen da, hau da, eztabaida. |

## 4. Debate sobre la presentación

Dado el reducido número de asistentes, se tratan todas las cuestiones en un solo grupo de trabajo.

Mediante dicho trabajo grupal se obtienen importantes aportaciones que serán de utilidad a la hora de completar el borrador de la diagnosis:

- **Población de Izurtza:**
  - Izurtza tiene una índice elevado de persona de la tercera edad. Además, existe un problema de falta de vivienda en todo el municipio para los/las jóvenes.

- **Peatón y bicicletas:**
  - Los carriles para peatones y para bicicletas deberían ser ante todo viales seguros. Además, la administración debería animar el uso de los carriles bici por ejemplo con alquileres de bici.
  - Sería necesario un cambio de mentalidad para que la gente use los carriles de forma cotidiana.
  - El clima de Euskadi no ayuda para que la gente utilice los carriles bici de manera cotidiana.
  - Aunque si el uso de los carriles peatonales y de bicicleta es socializado y la gente lo utilizase de forma cotidiana la gente se animaría a usarlos todos los días.
  - Todos/as afirman que la existencia de dichos carriles no solo debe ser de ocio, sino que debe responder a la exigencias más importantes que marca la vida real: ir a trabajar, ir de compras, ir a la escuela...

- **Transporte público - colectivo:**
  - Actualmente, el servicio de Continental Auto no responde con las necesidades horarias de los residentes de Izurtza.
  - Por parte del Ayuntamiento se ha intentado solucionar este problema de falta de servicio de transporte público (horarios asequibles) acudiendo a diferentes administraciones, pero hasta ahora no se ha logrado solucionar el problema.
  - Desde la Diputación Foral de Bizkaia se está estudiando la posibilidad de implantar un servicio de

## 4. Aurkezpenari buruzko elkarrizketa

Bertaratutako herritarren kopurua txikia izanik, gai ezberdinei buruz hitz egin da talderik egin gabe, elkarrizketa zabal baten.

Eztabaida honetan hitz egindako ekarpenak interesgarriak eta baliagarriak izan dira eta diagnosiaren zirriborroa osatzeko erabiliak izango dira:

- **Izurtzako biztanleak:**
  - Diagnosiak kontutan hartu behar luke Izurtzako biztanleen ezaugarriak: Izurtzak pertsona nagusien tasa altua du eta gainera gazteentzat etxebizitza eskaintzarik ez dago.

- **Oinezkoak eta bizikletak**
  - Oinezkoentzat eta bizikletentzat ezarritako bide-sareak seguruak izan behar dira batez ere. Bizikleten bide-sareen erabilpena sustatzeko administrazioek bizikleten alokairua bultzatu beharko lukete.
  - Egunerokotasunean erabiliak izan daitezen mentalitate aldaketa bat beharrezkoa dela esan da.
  - Bide-sare hauen erabileran Euskadiko klimak ez duela lagunduko esan da.
  - Bestalde, bide-sare hauek erabiliak izango balira, jendeak erabilera honek animatuta gehiago erabiliko lituzke.
  - Denen ustetan era honetako azpiegiturak ez dira aisialdirako bakarrik erabili behar, egunerokotasunean erabili behar dira; erosketak, kudeaketak, lanerako eta eskolarako joan-etorriak etab. burutzeko erabiliak izan behar dira.

- **Garraio publikoa eta kolektiboa**
  - Gaur egun Continental Auto autobus konpainiak ematen duen zerbitzuaren kexu dira, zerbitzu hau ez da Izurtzako biztanleen beharrizanetara egokitzen.
  - Udala saiatu da garraio publikoaren eskaintzaren arazoa hobetzen (ordutegi eta maiztasun egokiak), administrazio desberdinetara jo du horretarako, baina jasotako erantzuna ez da egokia izan.
  - Bizkaiko Foru Aldundiak ba omen du garraio publiko zerbitzu bat ezartzeko ideia, "TaxiBus" antzerako zerbitzua, baina BI-623 ardatzean izango lituzke geralekuak zerbitzu honek, eta planteamendu honek ez omen du auzuneetara

| | |
|---|---|
| estudiando la posibilidad de implantar un sevicio de "TaxiBus", pero pasaría por la carretera general BI-623 y no pasaría por los barrios (Bitaño, Etxano, Ortuzar).<br>- Se comenta que sería ideal implantar un servicio de autobús o taxi bus que diese servicio a todos los habitantes de Izurtza (incluyendo a los barrios) con horarios y paradas virtuales que funcionase bajo demanda.<br>- Dentro del municipio de Izurtza existen varias empresas que no tienen acceso de transporte público que responda con los horarios de los/las trabajadores/as. Cada trabajador/a va en su vehículo.<br>- Todos/as pagamos impuestos y todos/as tenemos derecho a disfrutar del servicio de transporte público.<br>- Tanto el autobús Continetal que va a Vitoria, como el autobús Lurraldebus que va a Mondragón no tienen horarios que responden con las necesidades de la ciudadanía. | hurreratuko den zerbitzurik eskeintzeko asmorik, ez litzateke Bitaño, Etxano eta Ortuzar auzoetatik igaroko.<br>- Izurtzako biztanle guztiei zerbitzua eskainiko liekeen autobus edo taxi-bus zerbitzua ezartzea dela egokiena esan da, auzune guztietatik igaroko litzatekeena eta eskariaren araberako ordutegi eta geraleku "birtualekin".<br>- Izurtzan dauden enpresei dagokienez, bertako langileak bakoitzak bere ibilgailuan egiten dituztela joan-etorriak esan da. Ez daukate beren ordutegiekin bateratzen den garraio publiko eskeintzarik .<br>- Herritar bezala, eta zergak ordaintzen dituztela kontutan izanda, garraio publiko egokia izateko eskubidea aldarrikatu dute.<br>- Azkenik, Gasteizera doan Continental Auto konpainiak ezta Arrasatera doan Lurraldebus-aren lineak herritarren beharrizanak ez dituztela esan da, ordutegi eta maiztasunari dagokionez. |
| ▪ **La influencia de Durango en Izurtza**<br>- Durango es el municipio cabecera del Duranguesado donde se han centralizado todos los servicios (incluso los sanitarios). A causa de esta centralización sumando la falta de transporte público, Izurtza, y muchos pequeños municipios de los alrededores, tiene que ir en vehículo privado a Durango a realizar sus gestiones de compras o gestiones sanitarias.<br>- Además, mucha de la ciudadanía de Durango trabaja fuera de Durango, en los municipios colindantes, y esto provoca que se tengan que desplazar a su zona de trabajo. La falta de oferta de transporte público en estas zonas de trabajo puede provocar que dichos/as trabajadores/as tengan que ir en vehículo privado, generando más movilidad que la debida.<br>- Durango ha implantado la OTA y ha privatizado todos los parkings existentes en su territorio. Respecto a este último punto, Durango podría implantar un parking intermodal como el de Etxebarri. | ▪ **Durangon eragina Izurtzan**<br>- Durango Durangaldeko herrien buru da, eta bertan zentralizatu dira zerbitzu guztiak (osasunari dagozkionak ere bai). Zentralizazio honen ondorioz, eta Izurtzaren kasuan garraio publiko egoki eza gehituta, Durangoren inguruan dauden herrietako biztanleak beraien kudeaketak, erosketak edo osasun gaietako kudeaketak burutzeko ibilgailu pribatuan doaz Durangora.<br>- Gainera, Durangoko biztanleen kopuru handi batek Durangotik kanpo egiten du lan, inguruko herrietan, eta honek ere desplazamenduak eragiten ditu. Lantokien inguruan garraio publiko eskaintza ezak langile horiek ibilgailu pribatuan mugitzea dakar, eta horrek beharrezkoa baino mugikortasun handiagoa sortzen du.<br>- Durangok TAOa ezarri du eta bere lurretan dauden parking guztiak pribatizatu ditu. Aparkalekuei dagokionez, bertaratutakoen esanetan Durangok Etxebarrin dagoen bezalako aparkaleku intermodal bat ezarri beharko luke. |
| ▪ **Seguridad vial en Izurtza**<br>- El principal problema de Izurtza es que la carretera general BI623 transcurre por la mitad del municipio.<br>- Por la carretera BI623 transcurre un porcentaje | ▪ **Bide-segurtasuna Izurtzan**<br>- Izurtzan den arazo larriena BI 623 errepide nagusiak zeharkatzen duela omen da.<br>- BI 623 errepidetik gainera ibilgailu astun portzentai handi dela azpimarratu da, eta gainerabaimendutako abiadura |

elevado de vehículo pesado y además muchos de los vehículos transcurren por la misma circulan a una velocidad superior a la permitida.

- Actualmente es común ver porquería en las aceras y los arcenes.
- Que en la actualidad las aceras estén tan cerca de la carretera es muy peligroso.
- Los vehículos circulan a una velocidad superior a la permitida e incluso adelantan en pleno centro urbano, siendo este hecho muy peligroso para los peatones y residentes.
- La anchura de la carretera induce a que los/las conductores/as circulen con velocidad.
- Tal como indica el estudio, la carretera Bi623 es un vial que produce mucho ruido (más de 70 decibelios).
- Un asistente comenta que dadas las circunstancia actualmente el medio más seguro para salir de su casa es el coche.
- En cuanto a determinar uno de los puntos más negros de la carretera BI623 respecto a los peatones, los asistentes coinciden que sería la casa de Elias. Este edificio estaría ubicado antes del Polígono Arbizola.
- A los camiones que van con carga, pero sin toldo, se les cae parte de su carga en la rotonda de reciente construcción en la entrada de Izurtza.
- Habría que mirar el paso de peatones que se ha instalado en la rotonda citada, ya que algunos vehículos pasan a relativa velocidad por la misma.
- Para solucionar todos estos problemas, lo idóneo sería construir una variante al pueblo, ya que el resto de soluciones serían “parches” provisionales.

▪ **Transporte alternativo: compartir coche:**

- Actualmente, en Izurtza la gente no utiliza el coche compartido para realizar trayectos dentro del Duranguesado.

▪ **Aparcamientos disuasorios:**

- Actualmente, en Izurtza se utiliza como aparcamiento disuasorio (para compartir coche) el localizado delante del frontón (aprox. 15 plazas) y el localizado detrás del frontón (aprox. 73 plazas).
- Algunos/as ciudadanos/as de Izurtza han mostrado su

dela azpimarratu da, eta gainerabaimendutako abiadura baino arinago doazela.

- Bazterbideak ere ez daude egoera onean, zikinkeria ugari pilatzen da bertan.
- Gaur egun espaloiak errepide nagusiaren ondoan izateak arrisku egoerak sor ditzake.
- Ibilgailuak baimendutako abiadura gainditzen dutela salatu da, eta beste ibilgailuak herrigunetik pasatzean ere aurreratu egiten dituztela, oinezkoentzako eta herritarrentzako arrisku egoerak sortuz.
- Errepidearen zabalerak gidariak abiadura handiagora joaten gonbidatzen ditu.
- Zarata ere izan da hizpide. Azterketan azaltzen den moduan, BI 623 errepidea zaratatsuenetarikoa da (70 dezibeliotik gorako neurketekin).
- Bertaratutako herritar baten esanetan bere etxetik irtetzeko modu seguruena autoan irtetzea da.
- Oinezkoen segurtasunari dagokionez, Elias-en etxe ingurua dela esan da. Etxebizitza hau Arbizola Industrialdearen aurretik dagoena da.
- Harrobietara joan-etorriak egiten dituzten kamioiak toldo gabe ibiltzen direla direla ere salatu dute. Hori dela eta Izurtzaren sarreran ezarri berri den biribilgunearen inguruan harritxoak jausten dira, eta zikinkeria.
- Biribilgune horri dagokionez, bertan ezarri den oinezkoen pasaguneak daukan segurtasun maila berrikusi beharko litzatekeela esan da, ibilgailuak abiadura nabarmenean igarotzen omen dira bertatik.
- Bertaratuen ustetan, arazo guzti hauen konponbidea saihesbidea eraikitzea da, beste edozein konponbide behin-behineko txatala litzateke.

▪ **Garraio alternatiboak eta auto partekatzea:**

- Gaur egun Izurtzako biztanleek ez omen dute autoa partekatzen Durangaldeko herrietara egiten dituzten joan-etorrietan.

▪ **Disuazio-aparkalekuak:**

- Gaur egun Izurtzan bada disuazio-aparkaleku antzeko bat, autoa partekatzeko erabilia dena: Frontoiaren parean dago (15 aparkaleku gutxi gorabehera) eta badago beste bat frontoiaren atzekaldean (73 aparkaleku).
- Frontoiaren aurrekaldean dauden aparkalekuak direla eta,

disconformidad al Ayuntamiento respecto a que las plazas de aparcamiento sitas delante del frontón estén siempre ocupadas por gente que no es del pueblo y han sugerido que se implante algún sistema como el de la OTA para limitar el aparcamiento en dicha zona.

- **La movilidad en las empresas**

- A las empresas grandes deberían de obligarles por ley a establecer servicios de autobús que respondan a los horarios y necesidades de sus trabajadores.
- Debería de premiarse al trabajador por el uso del transporte público.
- El hecho de que no se tome en cuenta donde reside el/la trabajador/a en el momento de su contratación provoca que se genere más movilidad, ya que el/la trabajador/a se tiene que desplazar a su lugar de empleo. Si dicho/a trabajador/a fuese del mismo municipio, la movilidad se reduciría.
- Se comenta que a pesar de que las empresas han sido invitadas a este foro, no ha acudido ninguna de estas empresas.

- **Implicación social e institucional:**
  - **Implicación institucional desde la Mancomunidad:**
  - Algunos opinan que el cambio de mentalidad no sólo es una cuestión de concienciación. Primero la Administración debería poner los medios, poniendo una alternativa de transporte público.
  - La Mancomunidad debería impulsar los carriles para peatones, bicicletas y la oferta del transporte público.
  - Las zonas industriales deberían de estar correctamente surtidas de transporte público, carriles bici y de peatones.
  - Se comenta que antes había un tren desde Elorrio que podría volver a implantarse. Ya que el tren contamina menos que el autobús.
  - **Implicación social:**
  - Tendríamos que concienciarnos y socializar el hecho de dejar a un lado el uso del vehículo privado a través de la educación.

Izurtzako herritar batzuk partekatze-erabilera honek beraien aparkatzeko eskubidearen aurka doala eta, Udalari kexak luzatu dizkie. Honi dagokionez TAO antzeko sistemak ezartzea ere eskatu omen du norbaitek.

- **Enpresei loturiko mugikortasuna**

- Enpresa handiak legez beraien langileen ordutegi eta beharrizanetara egokitutako autobus zerbitzua eskaintzera behartuak egon behar liratekeela esan da.

- Langileek garraio publikoa erabiltzea saritu beharko litzateke.

- Langileak kontratatzerakoan non bizi diren ez da kontutan hartzen, eta honek mugikortasuna ugaritzea dauka, langileak beste herri batera joateko beharra izaten du eta. Langileak herrikoak bertakoak balira mugikortasun hau murriztuko litzateke.

- Foro honetara enpresak gonbidatu direla aipatu da, beraien inguruan den mugikortasunaren garrantziagaitik, baina ez da enpresetako ordezkaririk bertaratu.

- **Gizartearen eta erakundeen inplikazioa:**

**Amankomunazgotik sustatutako inplikazioa:**

- Batzuen ustetan, beharrezkoa den mentalitate aldaketa ez da kontzientziazio gaia bakarrik. Lehendabizi Administrazioek baliabideak ezarri beharko lituzkete, garraio publikoa alternatiba gisa eskainiz.
- Amankomunazgoak oinezkoentzako eta bizikletentzako bide-sareak eta garraio publikoaren eskaintza bultzatu beharko lituzke.
- Industrialdeak garraio publiko, oinezko eta bizikletentzako bide-sareekin lotuta egon behar dira.
- Elorriotik Durangorako trena zegoen duela urte asko. Berriz ere trena edo tranbia jar daitekeela esan da, interesgarria izango litzatekeela aukera hau aztertzea, trenak autobusak baino gutxiago kutsatzen duelako.

**Gizartearen inplikazioa:**

- Gizarteak kontzientziazioa behar du eta autoaren erabilera alde batera uztea hezkuntzaren bitartez bultzatu behar da.

| **5. Resumen del trabajo grupal** | **5. Taldekako lanaren laburpena** |
|---|---|
| Al haberse realizado el trabajo grupal en un solo grupo, todos/as los/as asistentes entienden que no es preciso realizar un resumen de los puntos expuestos en el trabajo grupal. | Taldekako lanean barik talde bakarrean hitz egin denez, bertaratutako denen iritziz tarte honetan hitz egindakoari buruz ez dago zertan laburpenik egin. |
| **6. Agradecimientos y despedida** | **6. Agurra eta hurrengo pausuen azalpena** |
| Una vez finalizado el diálogo entre ciudadanía, se expone que se la próxima reunión tendrá lugar el 29 de junio donde se presentará las propuestas de acción del Plan de Movilidad Sostenible del Duranguesado para su debate.<br><br>Se comunica la metodología del levantamiento del acta de lo efectuado, el envío de ésta hacia el Ayuntamiento y su posterior envío a los asistentes.<br><br>Se agradece a todos y todas su presencia y participación en este Foro, al igual que se aprecia la predisposición de los y las asistentes a participar exponiendo sus inquietudes y preguntas. | Herritarrekin elkarrizketa bukatu ostean, hurrengo pausua zein izango den azaldu da. Ekainaren 29an berriz ere herritarrekin biltzea da asmoa. Beste parte-hartze foro bat ospatuko da egun horretan, Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorraren Ekintza Planaren aurkezpena izango da hizpide foroan.<br><br>Parte-hartzaileei azaldu zaie akta onartzen denean Udalaren bitartez herritarrei zabalduko zaiela.<br><br>Bertaratutakoei beraien ekarpenak eskertu zaizkie, eta hurrengo fororako gonpidapena luzatu zaie. Hurrengo baten ere beraien zalantzak eta ekarpenak elkarbanatzeko prest daudela antzematen da. |